

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko EKAINAREN 23an  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU            EZ

DIRENAK

Susana Martín  
Josu Artetxe  
Xabier Artiñano

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dituzte:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko maiatzaren 19an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Gaiari buruz ez dute ezer aipatu, eta akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko maiatzaren 30ean eginiko ezohiko bilkuraren akta.**

Gaiari buruz ez dute ezer aipatu, eta akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, Airako Udalaren eta errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzazko Elkartearen lankidetzaren hitzarmena.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzaga osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Bikarte elkarteak zeregin humanitarioa sustatzeko eta laguntzeko duen interesa, eta egiten duen elkarlana eta garapen-lana.

**IKUSI DA.-** 2016. urteko udan Aiarako bi familiak Errusiako bi ume hartuko dituztela.

**IKUSI DA.-** Airako Udalaren eta errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzazko Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2016. urterako.

**IKUSI DA.-** 2016ko ekainaren 13an Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak egindako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzazko Elkarteari 2016. urtean zuzenean emandako diru-laguntza,

eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatzak, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartu du:

**Lehena.-** Onestea Aiarako Udalaren eta errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzazko Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, zenbait ekimen eta jarduera sustatzeko, bereziki 2016ko udan umeak hartzeko programa.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu eta gero, errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzazko Elkarteari jakinaraztea. Hitzarmenaren bi kopia bidaliko zaizkie erantsita, sinatzeko eta bi kopietako bat Udalari bueltatzeko.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen eskatzea, "Luiadoko 3. poligonoko 1333. partzelan erabilera publikoko jarduketak egiteko" obrak gauzatzeko.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak 2016ko maiatzaren 18an emandako agindua; horren bitartez, 2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten zen; deialdi hori 2016ko maiatzaren 31ko 162 zenbakiko EHAAan argitaratu zen.

**IKUSI DA.-** Obrak eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2016ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartu du:

**Lehena.-** Eusko Jaurlaritzak abiatu duen Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen programan honako obra hau sartzeko eskatzea:

- Luiadoko 3. poligonoko 1333. partzelan erabilera publikoko ekintzak.

**Bigarrena.-** Udalak bere gain hartuko ditu obren finantzazio osoa eta dagozkion ordainsariak, aurrekontuaren eta jasotako diru-laguntzen kargura.

**5.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2015 urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2017. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinen zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

**IKUSI DA.-** 2016ko ekainaren 20ko idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak diruzaintzaren gerakinaren gastu orokorrekin finantza egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

**AINTZAT HARTU DA.-** abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz 2016ko ekainaren 20an organo kontu hartzaileak egin duen txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoaren, berri du.

**6.- Onestea, bidezkoa bada, 3/2016 bilkurako kreditu gehigarria.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordaintzak ordaintzeko, eta ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

**IKUSI DA.-** Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundearen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera.

**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatzak, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartu du:

**Lehenengoa.-** Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA €</b>
323.622.002	ETXAURREN IKASTOLA KONPONTZEKO ETA ALDATZEKO OBRAK.	7.253,36 €
151.227.073	LAGUNTZA TEKNIKOA ETA JURIDIKOA: KALE BARRENA HITZARMENA	6.195,20 €
942.420.000	2015eko BERDINTASUNAREN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAREN ZATI BAT ITZULTZEA	908,59 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

<u>DIRU-SARREREN</u> <b>PARTIDA</b>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKOA (€)</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	14.357,15 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

**Bigarrena.-** Kontu-hartzaileak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

**7.- Onestea, bidezkoa bada, Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obren Proiektuaren esleipena, publizaterik gabe negoziatua, arautzen duten Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Plegua.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Udalak lizitatu egin behar dituela Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obrak; izan ere, ezin ditu bere bitartekoak erabiliz egin.

**IKUSI DIRA.-** “Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko” obren esleipena, publizaterik gabe negoziatua, arautzen duten Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Plegua.

**HONAKO HAU GERTATU DA.-** Obren proiektuaren zenbatekoa 200.000 eurotik beherakoa dela (BEZik gabe); hori dela eta, publizaterik gabe negoziatutako prozedura bidez gauza daiteke.

**IKUSI DIRA.-** Idazkariak ekainaren 22an egin zuen txostena eta kontu-hartzaileak 2016ko ekainaren 24an egin zuen txostena, kreditu nahikoa eta egokia dagoela adierazten duena.

**AINZAT HARTU DA.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen abenduaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa, hain zuzen ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 21., 22. eta 88.3 artikuluei dagokienez.

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Administrazio-espeditentea abiaraztea, “Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko” obra publizaterik gabe negoziatutako prozedura bidez kontratatzeko.

**Bigarrena.-** Aipatu kontratazioa arautu behar duten baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoaren plegua onestea.

**Hirugarrena.-** Baimentzea aipatutako kontratazioak Udal honi dakarkion gastua, 216.003,59 euroko kopuruan eta 2016 ekitaldiko Udal honetako Aurrekontuaren gastuen egoerako 323.622,002 partidari zordunketa eginda.

**Laugarrena.-** Baldintzen pleguaren berri ematea gutxienez hiru enpresa eskuduni, eta kontratua egiteko kontratazio-prozeduran parte hartzeko gonbidapena egitea.

**8.- Onestea, bidezkoa bada, Aiara eta Gorobel Mendilerroko Ermandadeko Batzordeari baimena emateko akordioa, Aiarako Udalaren izenean Losa haraneko udalerriekin elkarlanean kudeatzen dituzten mendi komunak mugarriztatzeko lanak egin ditzan.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

Aintzat hartu da Aiarako Udala Gorobel Mendilerroko Ermandade zaharreko kidea dela, eta Ermandade horrek Losa haraneko udalerriarekin (Burgos) batera kudeatzen dituen mendi komunak mugarriztatzeari ekingo diola. Horren helburua da bi erakundeek aspaldidanik duten gatazka, haien mendiak mugarriztatzeari buruzkoa, konpondu ahal izatea.

Mugarriztatze horri dagokionez, ikusi da hainbat lan tekniko egiten ari direla Gorobeiko mendien jabetzari eta mugei buruzko zalantzak argitzeko eta egiaztapenak gauzatzeko; izan ere, hainbat desadostasun dago horren inguruan (hainbat kontu auzipean ere badaude), jabetza bakoitzaren mugak ezartzeko.

Ikusi da Gorobel Mendilerroko Ermandade zaharra udalerrri mailatik gorako erakundea dela eta honako udalerrri hauek osatzen dutela: Aiara, Amurrio, Okondo, Lezama eta Ordunteko Batzarra. Udalerrri horiei dagokie Gorobel mendilerroko mendiaren jabetza indibisioa eta aprobetxamendu komuna; hala ere, baliteke Aiarako Udalaren ustez udal-titulartasuna duten mendiak egotea eta mendi horiek aipatu Ermandadeak kudeatzea.

Ikusi da Ermandadea osatzen duten udalerrien interesekoa dela elkarrekin jardutea haien ondasunak defendatzeko, eta horrek esan nahi lezakeela aldarrikapen-jarduketak abiaraztea; jarduketa horiek, noski, jabea denak baino ezin izango ditu abiarazi.

Bestalde, ikusi da azaroaren 20ko 62/1989 Foru Arauaren, Arabako eta Kontzejuen Zerbitzu Anaiarten Eraketa Prozedura, Lege Erregimena eta Funtzionamenduari buruzkoaren 8. artikulua; horren arabera, Anaiartearen eskumen administratiboa da bere ondasunen ikerketa, mugarriztea eta ofiziozko berreskurapena gauzatzea.

Hori gorabehera, aintzat hartu da Ermandadeak ordezkari gisa jardun dezakeela Udalaren ondasunen defentsan, hala dagokionean, Aiarako Udalak aipatu mendien gainean izan litzakeen erabilera edota jabetza eskubideak defendatzeko; alabaina, mugarriztatze-espeditentean edota horri buruzko geroko prozesu judizialetan ordezkari gisa jarduteak ez du ez esplizituki ez inplizituki esan nahiko Aiarako Udalak aitortzen duenik Ermandadeak titulartasunik, jabetzarik edo kontrolrik duenik.

Hori guztia dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraikiz, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 1. artikulua eta hurrengoek xedatzen dutenarekin bat, eta abenduaren 20ko aipatu 62/89 Foru Arauaren 11. artikulua esandakoarekin bat (artikulu horren arabera, Anaiartearen gobernu organoak elkartutako toki entitateen ordezkatzailleak izango dira), Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Baimena ematea Gorobel Mendilerroko Ermandade zaharrari, Aiarako Udalaren izenean, mugarriztatze lan horietan parte hartzeko, bai eta Ermandade horren ta Losa haraneko udalerrien arteko puntu zehatzetan dagozkion zedarriak eta mugarriak jartzeko.

Halaber, baimena ematea aipatu Ermandadeari beharrezko kudeaketa-lanak egin ditzan mugarriztatze-jarduketa horiek egiteko, bai eta horretarako beharrezkoak diren eskumenak eta jarduketak gauzatzeko ere, Gorobel Mendilerroko aipatu mendietan parte hartzen dutenen eskubideak eta jabetzak mugatzeko.

Ermandadeak aldian-aldian jakinarazi beharko dio Udalari zein kudeaketa-lan egin dituen eta zein izan den mugarriztatze-operazioen emaitza, horiek gauzatu ahala.

**Bigarrena.-**Aipatu Ermandadeari jakinaraztea baimena jasotzeak ez duela inolaz ere esan nahi Aiarako Udalak uko egiten dionik mugarriztatuko diren mendien gainean izan ditzakeen erabilera- edo jabetza-eskubideei, eta ez duela inolaz ere esan nahi Udalak Ermandadeari titulartasunik, jabetzarik edo kontrolrik aitortzen dionik. Hala, honako hau bi erakundeentzako onuragarria den jarduketa bat baino ez da, eta interesak hobeto kudeatu ahal izatea du xede.

**Hirugarrena.-** Aipatu Ermandadeari jakinaraztea emandako baimena baliozkoa izan dadin baldintza hau bete beharko dela: Ermandadeak aipatu baimena idatziz onartzea, bertan adierazten diren baldintzetan, aurreko bi puntuetan esandakoari jarraikiz.

**Laugarrena.-** Erabaki honen berri ematea Gorobel Mendilerroko Ermandadeari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

- Hemeretzia eta hamabost minutu direnean, Lauren jauna osoko bilkurara iritsi da.

## **9.- EH BILDU udal-taldeak aurkeztutako mozioa, Galder Barbardo Bonilla Amurrioko herritarraren atxilotari buruzkoa.**

Nerea andreak (BILDU) esan du Bilduren mozioa txertatu dela eta gero EAJ-PNVk beste testu bat aurkeztu duela, antzeko edukiarekin. Hori ikusirik, proposatu du gaia mahaiaren gainean uztea, batzorde batean eztabaidatzea eta testu bateratu bat adosten saiatzea.

EAJ-PNV taldeko kideak ados daude proposamenarekin; ondorioz, gaia eztabaidatu eta bozkatu gabe uztea erabaki da, mozio bateratu bat adosten saiatzeko.

## **10.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **Erref.- 165/16.- Emaus Bilbao, SCIS.-** Agiri gehiago eskatzea, jardueraren alde aurreko komunikazio-espedienteari buruz.
- **Erref.- 166/16.- P.M.I.B.-** Izorian dagoen etxebizitzara sartzeko bidea konpontzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.
- **Erref.- 167/16.-** Alkatearen 1-2016 kreditu-transferentzia aldatzeari dagokion espedientea.
- **Erref.- 168/16.- J.M.M.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Aguiñigan dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 169.- A.H.M.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko eraikineko atarira sartzeko kanpoko arrapalaren koska berdintzeko.
- **Erref.- 170.- R.R.D.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko Padura kalea 7 helbideko eraikinaren fatxadako heze-orbanak konpontzeko.
- **Erref.: 171.- M.G.C.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 172.- Onestea F/2016/5 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.- 173/16.- INYCOM.-** Aiarako Udalaren informatika-sistema mantentzeko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.- 174/16.- N.L.E.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoria udalerriko lursail batean familia batentzako etxebizitza bat eraikitzeko.
- **Erref.- 175/16.-** Udal-igerilekuak mantentzeko eta kudeatzeko zerbitzua esleitzea Talde Sport Servicios Deportivos SL enpresari.
- **Erref.- 176/16.- Landa-giroko OHZren errolda onestea (2016 ekitaldia).**
- **Erref.- 177/16.- Hiriko OHZren errolda onestea (2016 ekitaldia).**
- **Erref.- 178/16.- Belako Lanak,S.L.-** Aiarako bideetan eta errepide nagusietarako loturetan sastrakak kentzeko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.- 179/16.- “Llanten Harana” Kultur eta Arte Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko eskatzea.
- **Erref.- 180/16.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarte.-** 2016ko diru-laguntza zuzentzeko eskatzea.
- **Erref.- 181/16.- G.A.A.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan.
- **Erref.- 182/16.- P. y E., SC.-** Irekitzeko udal-lizentzia ematea, Costera udalerriko Norzagaray auzoan abeltzaintza-ustiaketa jarduera egiteko.
- **Erref.- 183/16.- A.D.S.C.-** Hondakinak kudeatzeagatik eraturako bermea itzultzea, eta Llantenoko etxebizitza handitzeari dagokion lehen aldiz erabiltzeko udal-lizentzia ematea.
- **Erref.- 184/16.- Arespalditzako Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Gizarte Zentroaren ondoko bidean telefono-erregistroa jartzeko eta azoka-gunean eta osasun-etxearen gunean kale-argiak babesteko 8 hesi jartzeko.
- **Erref.- 185/16.-** AFari diru-laguntza eskatzea, 2016. urtean euskarazko jarduerak egiteko.
- **Erref.- 186/16.- Ibaizabal Gaztetxea.-** 2015. urtean jarduerak egiteko emandako diru-laguntza justifikatzeko agiri zuzenduak aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 187/16.- Eskutxiko Ahotsak elkarte.-** 2015. urtean jarduerak egiteko emandako diru-laguntza justifikatzeko agiri zuzenduak aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 188/16.-** Llanten Haraneko Arte-Eskolari dagokion diru-laguntzaren zati baten ordainketaren eragozpena altxatzea, emakida ebatzi ez bada ere.
- **Erref.- 189/16.- Luiaondoko Padura kalea 5, 9, 13, 17 eta 19 helbideko etxebizitzak jabeak.-** Etxebizitzak lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 190/16.- Luiaondoko Padura kalea 5, 9, 13, 17 eta 19 helbideko etxebizitzak jabeak.-** Garajeak lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **Erref.-191/16.- JL.A.I.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 192/16.- FJ.O.B.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 193/16.- V.C.G.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 194/16.-MA.I.A.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 195/16.- R.A.M.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 196/16.- AM.F.B.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 197/16.- Aiarako bideetan eta errepede nagusietarako loturetan sastrakak kentzeko zerbitzua esleitzea Belako Lanak SL enpresari.**
- **Erref.-198/16.- H.I.R.** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugariaren txartela erakusteagatik.
- **Erref.-199/16.-F.M.L.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga ordaintzeko abonatuak ordainagiriaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, tarifak aplikatzean akatsa egin zelako.
- **Erref.-200/16.- MI.H.M.** 2016. urterako Hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariaren titularra izateagatik.
- **Erref.- 201/16.-MC.G.B. eta E.M.H** 2016. urterako Hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariaren titularrak izateagatik.
- **Erref.- 202/16.- MA.P.E.** Ofiziosko baja-espeditzea Biztanleen Udal Erroldan.
- **Erref.- 189/16.- Luiaondoko Padura kalea 6, 8, 10 eta 12 helbideko etxebizitzak jabeak.-** Aipatu helbideetako etxebizitzak lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 204/16.- J.M.A, Luiaondoko Padura kalea 39 helbideko etxebizitzak jabeen ordezkaria.-** Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, eraikineko sarrerako atea aldatzeko.
- **Erref.- 205/16.-** Maiatzaren 18ko 160/2016 Foru Aginduak esandakoari heldzea, eta 2016an San Isidro eguneko Abeltzaintza Azokaren XL. edizioa antolatzeko diru-laguntza eskatzea.
- **Erref.- 206/16.-** Ezkontza zibila eskuordetzea J.L.E. eta O.M.V.-ren artean.
- **Erref.- 207/16.- R.A.C.-** Izoriako partzela mugatzeko horma eraikitzeke obrak egiteko eskatutako lizentzia ukatzea.
- **Erref.- 208/16.- T.V.O.-** Arespalditzan dagoen partzelan atari bat eraikitzeke obrak egiteko eskatutako lizentzia ukatzea.
- **Erref.: 209/16.- M.C.A.L.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 210/16.- I.B.B.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko Padura kalean dagoen etxebizitza batean obra txikiak egiteko.
- **Erref.- 211/16.- Onestea F/2016/6 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 212/16.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Aretxako bideko zuloak konpontzeko.
- **Erref.- 213/16.- I.F.R.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzan dagoen partzela batean zaldiketarako zaldiak hazteko abeltzaintza-nabe bat eraikitzeke.
- **Erref.- 214/16.- G.A.P, S.U.Z.-en ordezkari gisa.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Retes de Llantenen dagoen partzela ixteko eta sarreran ate bat jartzeko.
- **Erref.- 215/16.-** Ezkontza zibila eskuordetzea C. F. R. eta N. C. I. E.-ren artean.
- **Erref.- 216/16.- T.V.O.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako 3. poligonoko 250 zenbakiko partzelan zenbait jarduera egiteko.

\* Lauren jaunak (BILDU) 165/16 zenbakiko dekretuari buruzko galdera bat dauka: zer jarduera egingo dira?

Idazkariak esan du laguntza-jarduera bat dela, eta jarduera gauzatzeko gauzak eskatu dizkietela.

\* Nerea andreak (BILDU) 188/16 zenbakiko dekretuari buruzko galdera bat egin du, hain zuzen ere Llanteno Haraneko Arte-Eskolari dagokion ordainketaren eragozpena altxatzeari buruz.



Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esanez gai horri buruz aurreko osoko bilkuran ere hitz egin zutela. Kontua da oraindik ez dela ebatzi 2016. urteko diru-laguntzaren emakida eta elkarteak adierazi duela arazo ekonomikoak dutela irakasleak kontratatzeko. Hori dela eta, proposatu zen 2016ko diru-laguntzaren zati bat aurreratzea, emakidaren espedientea oraindik ebatzi ez bada ere. Ezohiko egoera bat dela esan du, eta ordaindu zaien zenbatekoa 2016ko diru-laguntzaren kontura egin da. Joan den osoko bilkuran, idazkariak esan zuen horri buruzko zuzenketen txostena egin behar zela.

### **11.- Eskaerak eta galderak.**

- Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Aldundiarekin hitz egin dutela Gorobel Mendilerroak erortzen ari diren harriei buruz. Egin beharreko lanak aztertu dituzte, eta ondorioztatu dute lanen kostua 12.000 euro ingurukoa izango dela. Akordio bat lortu dute eta, horren arabera, zenbateko horren bi heren Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Ingurumen Sailak ordainduko dute; gainerako herena, berriz, Gorobel Mendilerroko Ermandade Zaharrak ordainduko du, beste ordainketa batzuentzat ditugun irizpide berdinei jarraikiz.

Lanak hasi aurretik jakinarazteko eskatu diegu; hala, abeltzainei jakinarazpena igorri ahal izango diegu, gune horretako pasabidea mugatzeko eta kalteak saihesteko.

- Esteban jaunak (BILDU) galdetu du zein den Mendilerroko Larreak Kudeatzeko Planaren kontratazio-espedientearen egoera.

Gentza jaunak erantzun dio astelehenean D.-ekin, Aialur enpresako kidearekin, elkartuko dela, eta Batzordean esandakoa jakinaraziko diola.

Esteban jaunak esan du D. jauna Batzordera etorri beharko litzatekeela, Planaren egoera azaltzeko.

Gentza jaunak erantzun du hala egingo dela.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita hiruan.

OE  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.